



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena Gai nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa Asuntos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailak 19

Vitoria-Gasteiz, 19 de marzo de 2016

Lehendakaritza

ONARTU DA EHUrekin HITZARMEN BAT IZENPETEA, GIZA ESKUBIDEAK ETA BOTERE PUBLIKOAK KATEDRA SORTZEKO

Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak baimendu du Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren eta UPV/EHUREN arteko hitzarmen bat sinatzea, Giza Eskubideak eta Botere Publikoak Katedra sortu, garatu eta mantentzeko. Ekimen honen berehalako bidea UNESCO Katedren Munduko Sarean sartzea izango da.

Gaur onartutako hitzarmena orain dela gutxi aurkeztu zen lehendakariak eta Bake eta Bizikidetzaren arloko arduradunak Iñaki Goirizelaia EHUKO errektorearekin egindako bilera baten ondoren.

Katedra honen **helburu** behinena da laguntzea, esparru akademikotik, euskal gizarteko giza eskubideen aldeko kulturaren sustapena eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea hobeto eta areago aplikatzea lotzen. Asmoa da botere publikoek diziplina horretan aurkitu ahal izatea jarduera publikoa, giza eskubideen arabera, eraginkortasun handiagoz eta biziago garatzeko laguntza gehigarria.

Giza Eskubideen Katedraren funtzioak eta gaiak

Katedraren funtzio zehatzak hiru esparrutara mugatuko dira:

1. Ikerketa eta zabalkundea
2. Prestakuntza eta gaikuntza
3. Aholkularitza erakundeentzat eta, hala badagokio, gizartearentzat.

Funtzio horiek garatzeko, besteak beste, honako jarduera hauek burutuko dira: argitalpen espezializatuak prestatuko dira; giza eskubideen egoerari buruzko txostenak egingo dira; eztabaida-foroak antolatuko dira; eta giza eskubideak gainbegiratzeko nazioarteko mekanismoetan eta kideko erakundeen bestelako nazioarteko sareetan parte hartuko da.

Erreminta akademiko hau sortzea lerrokaturik dago giza eskubideen agenda sortu berriarekin, hortxe kokatzen baititu Eusko Jaurlaritzak bizikidetzaren arloko datozen urteotako politikak. Alde horretatik, katedra honen ikerketa-lerroak, gaikuntza eta aholkularitza instituzionala honako gai hauetan hedatu ahal izango dira:



GAIAK

<ul style="list-style-type: none"> – giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea: funtsezko estandarrak; giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen instituzionalizazioa; eta babes-mekanismo konbentzionalak eta estrakonbentzionalak. – nazioarteko zuzenbide penala; – nazioarteko zuzenbide humanitarioa; – giza eskubideak eta biktimen eskubideak; – giza eskubideak eta terrorismoa; – giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza; 	<ul style="list-style-type: none"> – giza eskubideak eta politika kriminala; – giza eskubideak, heriotza-zigorra eta biziarteko zigorra – giza eskubideak eta tortura; – justizia trantsizionala eta justizia leheneratzailea; – giza eskubideak eta espetxe-zuzenbidea; – giza eskubideak eta erronka sortu berriak; – giza eskubideak eta diskriminazioa; – giza eskubideak, adierazpen-askatasuna eta gorroto-portaerak;
--	---

Katedraren jarduera-programa Jarraipen Batzordeak hartuko dituen erabakiei jarraituz garatuko da, eta Batzordea Eusko Jaurlaritzaren eta UPV/EHUren ordezkariak osatuko dute. Giza Eskubideak eta Aginte Publikoak Katedraren **egoitza** Unibertsitateko Bizkaiko Campusean egongo da.

Katedra **finantzatuko da** Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren diru-ekarpenekin, UPV/EHUK egiten dituen ekarpenekin (ekarpen ez-ekonomikoak) eta aurreikusitako jardueren esparruan kanpoko beste iturri batzuetatik lortu ahal izango diren laguntza eta diru-laguntzekin.

2016an 37.500 € bideratuko ditu Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak xede horretara. UPV/EHUK areto bat jarriko du Katedrak erabiltzeko, eta etorkizunean sortu ahal izango diren premien eta aretoen erabilgarritasunaren arabera zabaldu ahal izango da. Bestalde, Katedraren funtzionamenduan lagunduko du Unibertsitateko pertsonalaren lankidetzak eskainiz eta bere jarduerak garatzeko unibertsitatean erabiliko diren aretoak, azpiegiturak eta zerbitzuak mantentzeko ardura bere gain hartuz.

Lehendakaritza

<p>GOBERNU KONTSEILUAK EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAN ESKU HARTZEARI BURUZKO MASTERRA EGITEKO DIRU LAGUNTZAK ONARTU DITU</p>
--

Gobernu Kontseiluak 26.244 euroko diru-laguntza onartu du Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen bidez Emakumeen aurkako Indarkerian Esku Hartzeari buruzko Masterra egiteko ematen dituen laguntzen deialdirako, 2016-2017 ikasturterako.

Emakundek, Deustuko Unibertsitatearekin koordinaturik, masterraren lehen edizioa 2003. urtean kofinantzatu zuen. Ezarritako lankidetzaz-ildoarekin jarraituz, Deustuko Unibertsitateak eta Emakundek premia ikusi dute emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzen lagunduko duten neurriak bilatzeko eta marko berri bat ezartzeko.

Emakumeen aurkako Indarkerian Esku Hartzeari buruzko Unibertsitate Master Ofiziala 60 ECTS (Europako kredituak) dituen master ofiziala da, masterraren matrikulako zati baten ordainketa laguntzeko erabiliko da, 1.749,60 euroko gutxieneko batekin. Eskaerak aurkezteko epea 2016ko irailaren 8an bukatuko da.

Emakundek berdintasunaren inguruko unibertsitate ikasketak egiteko laguntza gehiago ditu, hala nola, Euskal Herriko Unibertsitateko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako XII. Masterra egiteko diru-laguntzak, 37.010 euroko kopuruarekin.

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

EUSKO JAURLARITZAK ONARTU EGIN DU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HERRI-ADMINISTRAZIOEN ENERGIA- IRAUNKORTASUNARI BURUZKO LEGE PROIEKTUA

- EA Eren, lurraldeen eta udalen esparruan aplikatuko da, eraikinak eta ibilgailuak kudeatzeari bereziki lotutako neurriekin.
- Administrazioek, bakoitzak bere esparruan, energia-kontsumoa % 25 murriztea lortu beharko dute 2025ean.
- Administrazioek eraginkortasunari eta mugikortasunari buruzko ikuskapenak eta planak egin beharko dituzte, kontsumoa murriztera bideratuta.
- 2025ean, eraikinen gutxienez % 25ek energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak eduki beharko dituzte.
- Berritutako flotaren % 100ek erregai alternatiboak erabili beharko ditu 2020tik aurrera.

Gobernu Kontseiluak onartu egin du Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen energia-iraunkortasunari buruzko Lege Proiektua. Horrek eragina izango du udalen, lurraldeen eta EA Eren esparruko erakunde guztiengan. Lege-proiektuaren helburua da energia-kontsumoa murriztea, energia-iraunkortasuna bultzatzea eta ingurumena babestea, eraikin publikoetan energia berriztagarriko instalazioak ezarrita.

Lege Proiektua onartu aurretik, 2015eko irailean, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu zituen beraren eta erakunde publikoen eraikin guztietarako iraunkortasun-dekretuan ezarritako konpromisoak.

Gainera, berriki, Eusko Jaurlaritzak Energia Estrategia Berria 2030 onartu du. Horrek, beste beste, helburu hau ezartzen du: sektore kontsumitzaile guztietan energia-eraginkortasuneko jardunak areagotzea. Horrela, 1.250.000 ptb (petrolio tona baliokidea) aurreztea aurreikusi da 2030. urterako.

“Gure asmoa da klima-aldaketaren arloan herri-administrazio arduratsua, ereduzkoa eta erreferentziazkoa izatea; eta, euskal gizarteko agente guztien inplikazioa lortzeko, beharrezkoa da herri-administrazioaren organo guztien ekintza eredugarria bultzatzea”.

Lege Proiektu berria hiru kapitulutan, hiru xedapen gehigarritan eta azken bi xedapenetan egituratzen da.

Xedea

Lege Proiektuak antolatu egiten ditu administrazioek bete beharreko eginbideak, helburu hauetara bideratuta: energiaren aurrezpen- eta eraginkortasun-neurriak bultzatzea eta energia berriztagarriak sustatu eta abian jartzea.

Jardun-esparrua hau izango da: udalen, lurraldeen eta EAEn erakunde guztiak, eta horien erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakundeak eta sozietate publikoak.

Lege Proiektuak helburu hauek ditu:

Legeak berak ezartzen du administrazioek, bakoitzak bere esparruan, **energia-kontsumoa % 25 murriztea** lortu beharko dutela **2025ean**. Helburu argi horrekin batera, honako hauek nabarmendu daitezke:

- Energiaren erabileran eraginkortasuna bultzatzea eta aurrezpena sustatzea.
- Energia berriztagarriak sustatu eta ezartzea.
- Petrolioaren erabilera arian-arian txikiagotzea.
- Erregai alternatiboa erabiltzen duten garraiobideak sustatu eta bultzatzea.
- Gasen emisioa murriztea.
- Administrazioaren energia-faktura murriztea.
- Sustatzea eta bultzatzea energia aurrezten lagunduko duten teknika eta teknologien ikerketa eta garapena.
- Ingurumenean energiaren erabilerak dakartzan inpaktuei aurrea hartzea eta horiek mugatzea.
- Energia-iraunkortasunaren eskakizunak politika publikoetan integratzea; bereziki, lurralde-antolamendu, hirigintza, etxebizitza eta garraiokoetan.
- Administrazioen artean lankidetzan aritzea eta akordioak adostea.
- Energia-eraginkortasunaren onurak hedatzea.

Iraunkortasunerako batzordeak administrazio bakoitzean

Lege Proiektuan xedatutakoaren arabera, administrazio bakoitzak energia-iraunkortasunerako batzorde bat izango du. 25.000 biztanletik gorako administrazioek urtebeteko epean sortu beharko dute batzordea, Legea indarrean jartzen denetik, eta 5.000 eta 25.000 biztanle arteko udalerriek bi urteko epean.

Batzordearen betebeharrak izango dira dagokion administrazio edo udalerriaren elementuen inbentario bat onartzea, Legea betetzen dela ziurtatzea eta, aldizka, energiaren alorreko bere jardun-plana zein egoeratan dagoen jakinaraztea.

Lege Proiektuak ezarri eta exijitzen dituen ekintzak administrazioaren jardun orokorren, bere eraikinen eta mugikortasun-alderdien inguruan egituratzen dira.

EKINTZAK

Inbentarioa

Administrazioek euren eraikinen, ibilgailu-parkearen eta argiteria publikoko instalazioen inbentarioa egingo dute, eta haien eraikin, ibilgailu-parke eta argiteria publiko bakoitzaren energia-kontsumoa eta -gastua neurtuko dituzte.

Administrazioek bere gain hartu beharreko neurri zehatzak:

Kontsumoen kontrola: Legea indarrean jartzen denetik urtebeteko epean, 25 kW-tik gorako potentzia instalatua duten administrazio bakoitzaren eraikin eta instalazioek energia elektrikoaren kontagailuak izan beharko dituzte.

Energia-ikuskapenak: hiru urteko epean, 70 kW-tik gorako potentzia termikoa duten administrazio bakoitzaren eraikinek energia-ikuskapen bat eduki beharko dute, haien kontsumoari buruzko diagnostikoa eta hobetzeko neurriak jasota. Ikuskapenetan, datu hauek bilduko dira: energia hornitzen duten iturrietako bakoitzaren ehunekoa, horiek hobetzeko aplikatu beharreko neurriak eta energia berriztagarrien arloko jardunak.

Energiaren alorreko jardun-planak: era berean, administrazio guztiek energiaren alorreko jardun-plan bat egin beharko dute, kontsumo iturriak (argiteria publikoa barne) banakatuko dituen diagnostikoarekin eta energia-iraunkortasunerako neurriekin, euren ikuskapenaren eta lege honen exijentzien arabera.

Energia berriztagarrietatik datorren energia erabiltzea

Administrazio bakoitzak, 2025erako, bere **eraikinen gutxienez % 25ek energia berriztagarriak aprobeztatzeko instalazioak** edukitzea lortu beharko du.

Horretarako, energia elektrikoa erosteko lizitazioetan, bereziki baloratuko da hura berriztagarria izatea. Gainera, eskuratutako energiaren % 10 energia elektriko berdea izan dadin exijitu ahal izango da, baldin eta hori ekonomikoki arrazoizkoa bada.

Instalazioak, tresneria, flotak eta ibilgailuak berritzea

Kontsumoak monitorizatu ahal izango dituzten kudeaketa zentralizatuko sistemak instalatuko dira.

Eskuratzen diren produktu, zerbitzu eta eraikinek energia-errendimendu handia izan beharko dute. Hala, eraginkortasun klase gorenaren barruan egongo dira.

Hori bereziki kontuan hartuko da klimatizazioko, ur bero sanitarioko, ofimatikako eta argiteriako tresneria erostean.

Ibilgailuei dagokienez, haien bizi-zikloa eta sorrarazten dituzten energia- eta ingurumen-inpaktuak kontuan izango dira.

ERAIKINAK

Bete beharreko neurriak:

- Administrazioaren eraikin guztiek energia-eraginkortasunaren ziurtagiria izan beharko dute bi urteko epean.
- B baino energia-kalifikazio txikiagoa duten administrazio bakoitzaren eraikinen % 25etan, 2025a baino lehen kalifikazio hori hobetu beharko da maila bat gutxienez.

Salbuespenak ezartzen dira; adibidez, balio arkitektonikoa eta historikoa duten eraikinen, gurtzako lekuen eta bi urtetik behera erabiltzeko diren behin-behineko eraikuntzen kasuan.

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Garrantzi bereziko arloa denez, neurri eta helburu zehatzekin jardun behar da haren gainean.

Erregai alternatiboak ibilgailu propioetan:

- **2020tik** aurrera, eskuratzen diren ibilgailuen % **100ek erregai alternatiboak** erabili beharko dituzte.

Horrek ez du eraginik, segurtasun-arrazoiak direla-eta (pertsonek segurtasuna, osasun-segurtasuna edo ingurumen-segurtasuna), petroliotik eratorritako erregaien bidez bultzatzen diren garraio-ibilgailuen gutxienerako kopuru bat behar duten sailengan.

- **Udal-administrazioek**, udalerrri bakoitzean, 2.000 biztanleko, **ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntu** bana egon dadin lortu beharko dute 2025erako.
- **Eraikin berriek** ibilgailuak **kargatzeko puntuak** eduki beharko dituzte, baita **bizikletak erabili eta aparkatzea** erraztuko duten eremuak ere.

Bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzu publikoa

Erregai alternatiboa erabiliko duen garraio publikoa arian-arian erabiltzera joko da; eta esleipen-agirietan kontuan hartuko da berritutako flotaren % 100ek erregai alternatiboak erabili beharko dituela 2020tik aurrera.

Ibilgailuen zirkulaziorako murrizketak

Udalek debekatu edo murriztu ahal izango dute eremu jakin batzuetarako sarrera erregai alternatiboak erabiltzen ez dituzten edo emisio-maila jakin batzuk gainditzen dituzten ibilgailuentzat.

Erregai alternatiboak erabiltzen dituzten ibilgailuak aparkatzeko lehentasuna eta diskriminazio positiboa ezarri ahal izango dituzte.

Mugikortasun-planak

25.000 biztanletik gorako udalerriek hiri-mugikortasunerako plan bat ezarri beharko dute bi urtetan. 5.000 eta 25.000 biztanle arteko udalerrientzat, epe hori hiru urtekoa izango da.

Aldundiek hiriarteko mugikortasun-plan bat eduki beharko dute.

Planak jaso egingo ditu, besteak beste, garraiobide guztiak eta horiek energiaren erabileran duten eragina, eta erregai alternatiboko ibilgailuak kargatzeko puntuen instalazioei buruzko neurriak ezarriko ditu. Gainera, garraio publikoa, garraio pribatuarekiko hautabideak eta bizikletaren erabilera sustatuko ditu, besteak beste.

Energia-eraginkortasunaren kudeaketa: komunikazioa eta prestakuntza

Azkenik, administrazioek aurrezpena eta eraginkortasuna areagotzeko hartzen dituzten neurriak txosten batean argitaratu beharko dituzte. Txostenean, energia-kontsumoaren mota zehaztuko da, eraikinen eta erabilitako energia-iturrien arabera banakatuta, baita administrazio bakoitzak egindako inbertsioak eta Legearen betetze-maila ere.

Energia-aurrezpena eta -eraginkortasuna areagotzeko tekniketan euren esparruko pertsonala prestatzeko plan bat egingo dute.

Nahitaez erakutsi beharko dute energia-eraginkortasunaren etiketa eraikinetan, eta, eskuratzen dituzten ibilgailu berrietan, horiek erabiltzen duten erregai motari buruzko informazioa.

Enplegu eta Gizarte Politikak

125.000 EUROKO DIRU-LAGUNTZA PASAIAKO 2014KO SUTEAK KALTETUTAKO ETXEBIZITZAK BERRERAIKITZEKO

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Angel Toñak proposatuta, Gobernu Kontseiluak erabaki du 125.000 euroko diru-laguntza ematea Pasaiako Euskadi etorbideko 5 eta 7 zenbakietako jabe-kideen erkidegoei. Bloke horiek 2014ko suteak suntsitu zituen eta eraitsi egin zituzten urte horrexen amaieran.

Eusko Jaurlaritzak bere garaian hartu zuen konpromisoaren arabera, diru-laguntzaren zenbatekoak aukera emango du 2014ko urtarrilaren 1eko goizaldean izan zen suteak kaltetu zituen etxebizitzak berreraikitzeke oinarritzko proiektuen kontratazioa eta eraikuntza-proiektuaren kostua ordaintzeko.

Gerora egin ziren ikerketen arabera, bengala bat izan zen sutearen eragilea. Portu-herriko Euskadi etorbideko 5 zenbakiko higiezinaren zurezko teilatua sortu zen sua, pixkanaka-pixkanaka gainerako egitura zehar barreiatu zen, eta aldameneko eraikina eta beste bi higiezin ere eraginpean hartu zituen. Izandako sutearen ondorioz, kalte materialak handiak izan ziren. Sua bizkor hedatu zen zurezko teilatuetan zehar eta lehen unean bost ezkaratzetako bizilagunak —5, 7, 9, 11 eta 13 zenbakietakoak— irtenarazi zituzten arren, azken bietako bizilagunak beren etxeetara itzuli ahal izan ziren.

Ogasuna eta Finantzak

ELKARGIREKIN ETA OINARRIREKIN HITZARMENAK SINATZEA, EUSKAL ENPRESEN FINANTZIAZIOA LOR DADIN ERRAZTEKO

Gobernu Kontseiluak berritu du Eusko Jaurlaritzak ELKARGI eta OINARRI elkarren bermerako sozietateei emango dien birfidantzamendurako hitzarmenen sinadura, 2016an euskal enpresen alde egingo diren finantza-abaletako eragiketen ondoriozko birfinantzamendua izango da.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

9,02 MILIOI EURO PERTSONAL IKERTZAILEAREN PRETAKUNTZA ETA HOBEKUNTZARAKO BEKETARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du 2016/2017ko ikasturtean doktorea ez den pertsonal ikertzailearen prestakuntzarako doktoretza aurreko programan beka berriak deitu eta zeudenak berritzen dituen agindua.

Agindu honek, 9.020.835 euroko zenbateko globalean, 2016-2017ko ikasturtean doktorea ez den pertsonal ikertzailearentzako beka finkatu eta deitzea ditu helburu (pasadan kurtsoan baino 718.705 gehiago) . Deialdiak 100 beka berria ematen ditu eta 2015/2016ko ikasturterako eman zirenak berritzen ditu. Bai eta 2017an doktoretza eskuratu dutenentzako sariak ere.

Doktorea ez den personal ikertzailearen programa, Eusko Jaurlaritzak ikerkuntzara zuzendutako giza baliabideak bultzatzeko asmoan kokatzen da. Doktoretza aurreko programak ikertzaileen prestakuntza sustatu nahi du, doktorearen titulua lortzeko eta kalitateko ikerketa zientifikoari lotutako gaitasun eta trebetasunak eskuratzeko doktoretza-programa baten barruan, ondorengo bi azpiprograma hauen bidez:

Doktorea ez den pertsonal ikertzailearen prestakuntzarako beken azpiprograma Euskal Autonomia Erkidegoko aplikazio-zentroetan: A modalitatea.

Doktorea ez den pertsonal ikertzailearen prestakuntzarako beken azpiprograma Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko aplikazio-zentroetan, bai Espainiako estatuan (B modalitatea) bai atzerrian (C modalitatea).

LEGEBILTZARREAN ORDEZKATUTA DAUDEN ALDERDI POLITIKOekin LOTURA DUTEN FUNDAZIO ETA ELKARTEEI DIRU-LAGUNTZAK

Gobernu Kontseiluak onartu du, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteentzako diru laguntzak arautzen dituen 2016 urteko Agindua. Deialdi honek 282.500 euroko diru-kopurua du.

Diru-laguntza hauen helburua da aipaturiko fundazio eta elkarteek garatzen dituzten proiektu, programa eta ekintzak diruz laguntzea. Jarduera hauek guztiek pentsamendua eremu guztietan ikertu eta garatzera bideratuak izan beharko dute, eta bereziki pentsamendu politiko, soziala eta kulturala garatzera bideratutakoak.

Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindua EHAAan argitaratu eta hurrengo egunean hasita.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

100.000 EURO LHrako EUSKARAZKO MATERIALETARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, gaurko bileran hartu du LANEKI elkarteari diru-laguntza bat emateko erabakia, euskarazko material didaktikoak, Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan erabiltzeko, ikastetxeen eskura jartzeko.

Testuliburua osatuko duten material didaktikoak egin, selekzionatu eta itzultzea ditu 100.000 euroko diru-laguntza honek helburu. Material horiek Internet-en jarriko dira, irakasleen eta heziketa-zikloak euskaraz egiten dituzten ikasleen eskura egon daitezen.

1,4 MILIOI EURO MUSIKENeko EKIPAMENDUETARAKO

Gobernu Kontseiluak Musikene Fundazioaren aurrekontuen 1,4 milioi euroko gehitzea onartu du. Zenbateko hura eraikuntza berriak behar dituen ekipamenduetarako erabiliko da.

Zenbatekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, transferentzia bitartez, bideratzen du.

Maiatzak 24ko 1/2011 Lege Dekretuak jasotzen duenez, bere 98.2 artikuluan, erakundearen aurrekontuen jasotzen ez den gastu edo inbertsio bat burutzeko, Eusko Jaurlaritzari dagokio aurrekontua gehitzearen erabakia hartzea, erakunde horren aurrekontuen %10 eta %30eko tartea suposatzen duenean.

Osasuna

EUSKO JAURLARITZAK OSAKIDETZAKO PLANTILLA HANDITUKO DU 700 LANPOSTU BERRI SORTUZ, KALITATEZKO ENPLEGUAREN ALDEKO ERAKUNDEAREN APUSTUARI JARRAITUZ

- **Era horretan 26.400 profesional edukitzera helduko da, legealdi honetan ezarritako osasuneko antolakuntza-eredu berriari eta Jon Darponek zuzentzen duen Saisetik sustatutako proiektu estrategikoei erantzuteko**

Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako bozeramailea aldamenean zuela, Jon Darpon Osasun sailburua Kontseiluaren ondorengo prentsaurrekoan egon da, eta 700 lanpostu berriekin Osakidetzako plantilla handitzeko erabakia hartu dutela adierazi du.

Lanpostu berriak sortzeko erabaki honi esker, egiturazko plantilla 25.700 profesional edukitzetik 26.400 edukitzera pasatuko da. Horri esker, Osakidetzak Euskadiko enpresa publiko handiena eta emakume gehien dituen estatuko enpresa izaten jarraituko du.

Jon Darpon sailburuaren hitzetan, neurri berri honek beste behin ere erakusten du "Eusko Jaurlaritzak enplegu egonkorra eta kalitatezkoa babesten dituela, eta Osasun Sistema publikoa sustatzen duela Euskadin."

Horrela, beharren inguruko analisi estrategikoa eta beharren azterketa eta plangintza egokia egin ondoren, Urkullu lehendakariaren jaurlaritzak aipatutako Euskal Osasun Zerbitzuaren plantilla handitzea onartu du. Plantilla handitzeko asmo hori jada jasota dago 2016. urteko aurrekontuetan, kasurako diru-kopurua bideratu baita. Aurtengo ekitaldirako 2.600.585,59 euro onetsi dira.

Analisi estrategiko horretan kontuan hartu dira finkatu beharreko lanpostuen beharra, Osakidetzaren zerbitzuen antolakuntzetan eragin handiko proiektu estrategiko korporatiboak, eta zerbitzu eta egitura sanitario berriak sortzea, duela gutxi zabaldu den Urduliz-Alfredo Espinosa Ospitalearen kasuan bezala.

Sortutako lanpostu berriak honela banatuko lirateke:

OSAKIDETZAN SORTURIKO 700 LANPOSTU BERRI

- **URDULIZKO OSPITALEAREN IREKITZEA 425**
 - MEKIDUAK 118
 - ERIZAINTZA 132
 - TEKNIKO SANITARIOAK 25
 - ERIZAINTZAKO LAGUNTZAILEAK 76
 - PERTSONAL EZ SANITARIOA 74

- **EGITURA BERRIEN FINKATZE ETA ZABALTZEA 275**
 - MEDIKUAK 114
 - ERIZAINTZA 66
 - TEKNIKO SANITARIOAK 39
 - ERIZAINTZAKO LAGUNTZAILEAK 22
 - PERTSONAL EZ SANITARIOA 34

- **TALDEKAKO LABURPENA**
 - MEDIKUAK 232
 - ERIZAINTZA 198
 - TEKNIKO SANITARIOAK 64
 - ERIZAINTZAKO LAGUNTZAILEAK 98
 - PERTSONAL EZ SANITARIOA 108

Osasuna

**LAGUNTZA GISA OSASUN SAILAK 300.000 EURO BANATUKO DIZKIE
BIZI KALITATEA HOBETZERA BIDERATUTAKO JARDUERAK BURUTZEN
DITUZTEN PERTSONA GAIXOEK ETA HAUEN FAMILIEK OSATUTAKO
ELKARTEEI**

Jarduerak Euskadin burutzen dituzten patologia komuna duten pertsonak eta hauen familiek osatutako irabazi-asmorik gabeko taldeei egiten duten lanagatik laguntzak emateko deialdia onartu du Gobernu Kontseiluak.

Osasun Sailak elkarte hauen ekarpena asko baloratzen du eta bertan betetzen duten papera funtsezkoa iruditzen zaio, gaixorik daudenentzako zein euren familientzako topagune, komunikaziogune eta babesgune bihurtzen direlako.

Gainera, gaixotasunak eta tratamenduak ezagutzen, eta gizarteari gaixotasuna prebenitzeko informazioa ezagutzera ematen laguntzen dute eta, horrenbestez, pertsona guztien ongizatea hobetzen laguntzen dute.

Gauzak horrela, laguntzak 216ko ekitaldian burutuko diren ondoko ekintzetara bideratutako jardueretarako erabiliko dira:

- ✓ Gaixotasunen bat duten pertsonak eta hauen familiek osatutako taldeei laguntzeko, euren burua zaintzeko ahalmena eta autonomia handitzeko gaitasunak eta baliabideak garatzen.
- ✓ Kaltetutako pertsonen premia soziosanitarioak babesteko eta bideratzeko.
- ✓ Kaltetutako pertsonak eta hauen familiei gaixotasunari, gaixotasunaren beraren arrisku-faktoreei eta osasun-arloko jokabide egokienei buruzko ezagutza eta informazio zabalagoa emateko.
- ✓ Kaltetutako pertsonen osasun-arloko desberdintasunak murrizteko.

Eskaerak aurkezteko epea deialdia EHAAn argitaratzen den biharamunean hasiko da eta irailaren 16ra arte egongo da zabalik.

Ingurumena eta Lurralde Politika

**GOBERNU KONTSEILUAK PREMIAZKOTZAT JO DU GESALTZA
AÑANAKO ETA TUESTAKO (ARABA) SANEAMENDUKO HODI
BILTZAILEENTZAKO LURSAILEN OKUPAZIOA**

Gobernu Kontseiluak premiazkotzat jo du Espejoko hondakin-urak tratatzeko araztegiarekin konektatuko diren Gesaltza Añanako eta Tuestako saneamenduko hodi biltzaileak egiteko proiektuari jarraiki Arabako Foru Aldundiak nahitaezko desjabetzea aplikatuz egin behar duen ondasunen eta eskubideen okupazioa.

**GOBERNU KONTSEILUAK PREMIAZKOTZAT JO DU LURSAILEN
OKUPAZIOA, A-4340 ERREPIDEA MELLEDES ETA MANZANOS ARTEAN
(ARABA) ZABALTZEKO ETA HOBETZEKO**

Gobernu Kontseiluak premiazkotzat jo du A-4340 errepidea Melledes eta Manzanos artean zabaltzeko eta hobetzeko lanen gauzatzerako Arabako Foru Aldundiak nahitaezko desjabetzea aplikatuz egin behar duen erasandako ondasun eta eskubideen okupazioa.

Presidencia

APROBADO EL CONVENIO CON LA UPV PARA LA CREACION DE LA CÁTEDRA DE DERECHOS HUMANOS Y PODERES PÚBLICOS

El Consejo de Gobierno ha dado hoy luz verde a la firma de un Convenio entre la Secretaría General para la Paz y la Convivencia y la Universidad del País Vasco- UPV/EHU para la creación, desarrollo y sostenimiento de la Cátedra de Derechos Humanos y Poderes Públicos de la UPV/EHU. Se trata de una iniciativa cuya vocación inmediata es su incorporación a la Red Mundial de Cátedras UNESCO.

El Convenio hoy aprobado fue presentado recientemente tras la reunión que el Lehendakari y responsables del área de Paz y Convivencia mantuvieron con el Rector de la UPV/EHU Iñaki Goirizelaia.

La **finalidad** más específica de esta Cátedra es colaborar, desde el ámbito académico, en la conexión de la promoción de la cultura de los derechos humanos en la sociedad vasca con la mayor y mejor aplicación del derecho internacional de los derechos humanos. Se trata de que los poderes públicos puedan encontrar en dicha disciplina un punto adicional de apoyo para desarrollar de forma más intensa y efectiva una actuación pública conforme a los derechos humanos.

Funciones y temática de la Cátedra de DDHH

Las funciones concretas de la Cátedra se sintetizan en tres ámbitos:

4. Investigación y divulgación
5. Formación y capacitación
6. Asesoramiento institucional y, en su caso, social.

Para desarrollar estas funciones se llevarán a cabo actuaciones como la elaboración de publicaciones especializadas; informes de situación sobre el estado de los derechos humanos; organización de diferentes foros de debate y así como la participación en mecanismos internacionales de monitoreo de los derechos humanos otras redes internacionales de instituciones homólogas.

La creación de esta herramienta académica está en línea con la agenda emergente de derechos humanos en que sitúa el Gobierno Vasco las políticas de convivencia de los próximos años. En este sentido, las líneas de investigación, capacitación, y asesoramiento institucional de esta cátedra se podrán desplegar en los siguientes apartados temáticos:

APARTADOS TEMÁTICOS

